

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Proiektu honen xede-bezeroak askotarikoak dira, baina guztiek ezaugarri komun batzuk partekatzen dituzte. Lehenik eta behin, gazteak eta ikasleak daude, bidaiatzeko gogoia dutenak baina aurrekontu mugatua dutenak. Profil honek prezio merkeak, malgutasuna eta esperientzia sozialak baloratzen ditu.

Bestetik, lagun-taldeak daude, beste talde batzuekin elkartuz bidaia merkeagoak, antolatuagoak eta dibertigarriagoak egin nahi dituztenak. Halaber, bidaiari bakartiak ere kontuan hartzen dira; pertsona hauek jende berria ezagutu, esperientzia sozialak bizi eta segurtasun handiagoz bidaiatu nahi dute.

Merkatua plataforma multilateral gisa ulertzen da, erabiltzaile mota ezberdinak elkartzen dituelako, baina guztiek helburu komun bat dutelako: bidaiak modu erraz, antolatu eta eskuragarrian egitea. Segmentazio argi honek aukera ematen du aplikazioaren funtzioak, komunikazioa eta eskaintzak erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzeko.

